



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 29/2020 FORU DEKRETUA, maiatzaren 12koa, 2019-2020 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena. Jarduera horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 126/2019 Foru Dekretuak arautu ditu. (Oker zuzenketa).

Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2020ko maiatzaren 28koa, 100 zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 29/2020 FORU DEKRETUA, maiatzaren 12koa, 2019-2020 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeentzako foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena. Jarduera horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 126/2019 Foru Dekretuak arautu ditu.

Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani Buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.b.6) artikuluan dio Kondaira-Lurraldeei dagokiela Bateango Erakundeek emandako honako gaien artean osabideratu eta egipideratzea kirolaren sustapena, eta eskola-kirolentzako eta guztien kirolarentzako egitarauak.

Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 5. artikulua dio, halaber, lurralde historikoetako foru-organoei dagokiela Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-kirolaren arloko arauak garatzea eta gauzatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak sail horri esleitzen dio eskumen hau: maila guztietako kirol lehiaketak eta jarduerak sustatu eta koordinatzea, gure gizartean kirola aktiboki ager dadin eta harekiko zaletasuna bultzatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiak, eskoletako umeen artean kirola sustatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 126/2019 Foru Dekretuaren bidez Bizkaiko Eskola Kirola programaren 2019-2020 denboraldirako arautegia ezarri du.

Honako foru dekretu honen bidez diruz lagundu gura da aipatutako Eskola Kiroleko Programa horietan entitate desberdinek izan duten parte hartzea.

Foru Dekretu honek erregulazio onaren printzipioak betetzen ditu. Printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean daude ezarrita eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru Dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.



Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtetako gaietarako buruzko foru dekretuen proiektuak onartzen. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko maiatzaren 12ko bileran aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — *Diru-laguntza foralaren oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea*

Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 126/2019 Foru Dekretuaren babespean 2019-2020 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzen duten erakundeei Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak emango dizkien diru-laguntzen oinarri-arauak eta deialdia onartzen dira. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria. — *Diru-laguntzaren xedea*

1. Foru Dekretu honen arabera, diru-laguntza jaso dezakete jarduera hauek: Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 126/2019 Foru Dekretuaren babespean 2019-2020 denboraldian Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzea.

2. Foru Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko da txirrindularitzako modalitatea.

3. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.
- b) Banku-kontuetako interes zordunak.
- c) Interes, errekaru eta zehapen administratibo eta penalak.
- d) Prozedura judizialen gastuak.
- e) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluekin bat etorritako, beren-beregi kanpo utzitakoak.

4. Foru Dekretu honen helburua erakunde eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

2. oinarria. — *Erakunde onuradunak*

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretakoa batean ez dauden honako hauek izan daitezke onuradunak:



a) Bizkaiko Lurralde Historikoan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten eskolak eta euren guraso elkarteak edo horiei lotutako nortasun juridikoko entitateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza soziala duten kirol elkarteak edo/eta kirol klubak, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak eta/edo udalek kirolaren arloan dituzten udal organismo autonomoak edo udal fundazio publikoak ere, baldin eta 2019-2020 denboraldian Bizkaian honako jarduera hauetakoren batean parte hartu badute:

1) Lehiaketa-jarduerak:

- Kirol anitza eta udal mailako kirol anitza.
- Aerobika.
- Xakea.
- Atletismoa.
- Saskibaloia.
- Saskibaloia 3x3.
- 5/3kako saskibaloia.
- 5eko eskubaloia.
- 7ko eskubaloia.
- Hondartzako eskubaloia.
- Beisbola.
- Krosa.
- Herri kirolak.
- Kirol eskalada.
- Alpetar eskia.
- Frontenisa.
- Areto-futbola.
- 7ko futbola.
- 9ko futbola.
- 11ko futbola.
- Gimnasia artistikoa.
- Gimnasia erritmikoa.
- Gimnasia jauzi-oholean.
- Hockeya.
- Patinen gaineko hockeya.
- Ilara bakarreko patinen gaineko hockeya.
- Judoa.
- Karatea.
- Borroka.
- Igeriketa.
- Igeriketa sinkronizatua.
- Orientazioa.
- Padel.
- Patinaje artistikoa.
- Patinaje lasterketak.
- Zesta-puntako pilota.
- Eskuzko pilota.
- Palako pilota.



- Trinketeko esku-pilota.
 - Piraguismoa.
 - Arrauna.
 - Roller freestyle.
 - Errugbia.
 - Skateboarda.
 - Surfa.
 - Taekwondo.
 - Tenisa.
 - Mahai-tenisa.
 - Arku-tiroa.
 - Triatloia.
 - Txikibox.
 - Bela.
 - Hondartzako boleibola.
 - Boleibola.
 - 3ko boleibola.
 - Waterpolo.
- 2) Hezkuntza-jarduerak:
- Heziki.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten eskolak edo euren guraso elkarteak edo horiei lotutako nortasun juridikoko entitateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza soziala duten kirol elkarteak edo/eta klubak ere, baldin eta Araba edo Gipuzkoako eskolako kiroleko jardueretan parte hartzen badute eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Sailaren baimena badute. Entitate onuradunak izango dira, baldin eta eskola kirolaren programetan barne hartutako lehiaketako jardueraren batean parte hartu badute, hurrenez hurren, Araba edo Gipuzkoako foru aldundietan.
2. Foru Dekretu honen ezarpen eremutik kanpo daude:
- a) Honako hauetan ezarritakoa betetzen ez duten erakundeak: ekainaren 11ko Euskal Autonomia Elkarteko Kirolari buruzko 14/1998 Legea, Eusko Jaurlaritzaren eskola kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua, eta aplikatu daitezkeen gainontzekoak. Ez betetzeen artean, administrazio baimen adierazirik gabe Eskola Kirola programetan jasota ez dauden lehiaketak egitea dago, edo horietarako arauz ezarritako eremu geografikoa ez errespetatzea.
 - b) Parte hartu ez duten entitateak edo izena emandako jardueratik alde egiten dutenak.
 - c) Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 126/2019 Foru Dekretuarekin bat Bizkaiko Eskola kiroleko programan parte hartzeko izena eman ez duten entitateak.
 - d) Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko Eusko Jaurlaritzaren 391/2013 Dekretuan edo, haren ordeztu, ekainaren 11ko Euskal Autonomia Elkarteko Kirolari buruzko 14/1998 Legean jasotako falta oso larriren bat egiteagatik zehapenen bat jaso duten entitateak.
 - e) Foru Dekretu honen ezarpen eremutik kanpo daude, baina kasuan kasuko kirol modalitateari dagokionez soilik, Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko Eusko Jaurlaritzaren 391/2013 Dekretuan edo, haren ordeztu, ekainaren 11ko Euskal Autonomia Elkarteko Kirolari buruzko 14/1998 Legean jasotako falta larriren bat egiteagatik zehapenen bat jaso duten entitateak.
 - f) Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baimendu ez dituen kirol jarduerak antolatu dituzten entitateak edo jarduera horietan parte hartu dutenak, zein emaitzak lortze hutsagatik deialdiak egin dituztenak, Bizkaiko Foru



Aldundiaren abuztuaren 21eko 126/2019 Foru Dekretuak xedatzen duenaren arabera. Emaizak lortze hutsagatik deialdiak egitea.

- g) Foru Dekretu arautzaile honen 1. oinarriko lehen idatz-zatiko jardueretako batean ere parte hartu ez duten entitateak.
- h) Bizkaiko Eskola Kirola programak 2019/2020 denboraldian izango duen arautegia ebazten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 126/2019 Foru Dekretuaren 11.2 Oinarria betetzen ez duten gizonezkoen Futboleko eta Futbol mistoko kirol modalitateetan (F7 eta F11) parte hartzen duten Bizkaiko Kirol Elkarte edota Klubek, alegia, aurreko denboraldian izena emandako kirolarien %80a mantentzen ez dutenek.

3. Foru Dekretu honen xede diren jardueretan parte hartzeagatik onuradun izan litezkeen entitateek ez dute diru-laguntzarik jasoko laguntzak jasotzetik baztertuta geratu diren kirolari edo taldeengatik; baztertuta geratu behar izan dira, hain zuzen ere, Bizkaiko Eskola Kirola Programan jasota ez dauden egoerarako baimena emateko prozedura arautzen duen Foru Aginduaren arabera.

4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak ere kanpoan geratuko dira.

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

3. oinarria. — Araudi aplikagarria

Foru Dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euro edo gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sareren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. oinarria. — Arau-hausteak eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.

III. TITULUA

PROZEDURA

5. oinarria. — Eskabideak aurkezteko lekua eta epea

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikulua arabera, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>).

2. Eskariak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 1etik 15era artekoa da, biak barne.

**6. oinarria. — Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak**

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoak erabili behar dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Banku-helbideraketaren fitxa, behar bezala beteta erantsi beharko da.

Dokumentazio hau ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada foru aldundi honetako Kirol Zerbitzuan, eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.

3. Eskabideei honako dokumentuak erantsiko zaizkie, baita:

a) Desgaitasuna izateagatik diru-laguntza gehiago jaso dezaketen teknikariak edo jokalariek badira: %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa duela egiaztatzen duen agiria, Adin Nagusikoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo erakunde baliokideak emandakoa.

b) Kudeaketa integralaren hobekuntzarekin lotutako beste erakunde ofizial batzuek emandako ziurtagiriak eta haien edukia (soilik ez badira bikaintasunarekiko konpromisoarenak).

c) Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, erakundeek urtean aurreikusten dituen diru-sarrerak, guztira, adierazi behar dituzte.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskabidea sinatzen duenaren identifikazio-datuak. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titular-tasun-datuak egiaztatuko ditu, betiere eskatzaileek berariaz uko egiten ez badiote horri.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

5. Eskaera hau sinatuta baimena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari Ogasunaren, eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

6. Eskabide bat baino gehiago aurkezten badira, baliozkotzat joko da eta izapidetuko da soilik eskabideak aurkezteko epearen barruan egin den azken eskabidea.

7. oinarria. — Eskaera zuzendu eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan erakunde interresdunari errekerimendua egingo zaio, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan hutsunea zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela adieraziko zaio.

2. Edonola ere, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

8. oinarria. — Diru-laguntza emateko araubidea

Laguntzak emateko araubidea ezohikoa den hainbanaketa sistema izango da; Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.1 artikuluan aurrez ikusita dago sistema hori.

Hainbanaketa sistema erabiltzeko arrazoia da deialdi hau eskolei, guraso elkarteei eta eurei lotutako entitateei eta kirol elkarteei edo/eta klubei zuzenduta dagoela, bai eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei eta/edo udalek kirolaren arloan dituzten udal organismo autonomoei edo udal fundazio publikoei ere. Aurreko horiek guztiek, Foru Dekretu honek ezartzen dituen baldintza batzuk aurretiaz beteta dituztela eta burutu dituzten



jarduerak konparatu gabe, diru-laguntza jasoko dute eskarian aurkeztutako datuetan oinarrituta 9. oinarriko ebaluazio-irizpideen arabera. Artikulu horretako azken lerrokadan oinarriak ezartzen dira hainbanaketa egiteko, eta hainbanaketaren bidez, diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa kalkulatu da.

Horrela, Foru Dekretu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskabideei puntuak ezarri eta baloratu ondoren, aurrekontu muga proiektu eskatzaile bakoitzari ezarritzen zaion Foru Dekretuaren 9. oinarriko puntu eta zenbatekoen artean hainbanatuko da.

**9. oinarria. — Diru-laguntzak baloratzeko irizpideak**

1. Diru-laguntzak entitate eskatzaileen artean banatzeko, irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Parte-hartzea**1. Taldeko modalitateetan parte hartzea**

Parte hartzeagatik, gehienez, hamabost euro (15 euro) emango dira taldean inskribatutako jokalariko. Zenbateko hori %15 gehituko da kasu hauetan:

— Emakumeak badira.

— %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa dutela egiaztatzen duen agiria duten pertsonak badira; agiri hori Adin Nagusikoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo erakunde baliokideak emandakoa izan behar da.

— Herri kirolean parte hartzen duten pertsonak badira.

Puntuazioa gehitzeko ehunekoak metatu egingo dira aurreko baldintza horietako (emakumea, desgaitua, Herri kirola) bat baino gehiago betetzen dituzten pertsonen kasuan, eta, gehienez ere, %45 gehitu ahal izango da puntuazioa.

2. Banakako kirol modalitateetan parte-hartzea

Parte hartzeagatik, gehienez ere hamabost euroko (15 euro) diru-laguntza emango da izena emandako jokalaria bakoitzeko. Zenbateko hori %15 gehituko da kasu hauetan:

— Emakumeak badira.

— %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa dutela egiaztatzen duen agiria duten pertsonak badira; agiri hori Adin Nagusikoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo erakunde baliokideak emandakoa izan behar da.

— Arraunean parte hartzen duten pertsonak badira.

Puntuazioa gehitzeko aurreko baldintza horietatik lehen bien (emakumea, desgaitua) ehunekoak hasierako puntuazioari metatuko zaizkio.

Diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten jokalaria kopurua zehazteko, jardunaldi bakoitzeko jokalaria kopurua (jardunaldien akten arabera) zatituko da jokatutako jardunaldiengatik.

3. Hezikin parte hartzea

Parte hartzeagatik, gehienez ere hamabost euroko (15 euro) diru-laguntza emango da izena eman duen jokalaria bakoitzeko. Zenbateko hori %15 gehituko da kasu hauetan:

— Emakumeak badira.

— %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa dutela egiaztatzen duen agiria duten pertsonak badira; agiri hori Adin Nagusikoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo erakunde baliokideak emandakoa izan behar da.

Puntuazioa gehitzeko ehunekoak metatu egingo dira aurreko baldintzetako (emakumea, desgaitua) bat baino gehiago betetzen dituzten pertsonen kasuan, eta, gehienez ere, %30 gehitu ahal izango da puntuazioa.

Diru laguntza jasotzeko eskubidea duen jokalaria kopurua aterako da aktetan jasotako jardunaldi bakoitzeko parte hartzaileen batura zati jardunaldi kopurua eginez.

4. Kirol Hastapenean parte hartzea

Kirol anitzean, gehienez ere bostehun euroko (500 euro) diru-laguntza emango da izena eman duen talde bakoitzeko.

Hezikin, gehienez ere bostehun euroko (500 euro) diru-laguntza emango da diru laguntza eskubidedun 6 jokalariko (hots, aktetan jasotako jokalaria parte hartzaileen batura zati jardunaldi kopurua).



6ko jokalaria kopurua gaindituz gero, gehienez ere bostehun euroko (500 euro) diru-laguntza emango da beste jokalaria seikote bakoitzeko edo frakzioko.

Hezikin eta Kirol anitzean, bietan, taldea duten erakundeek, gainera, bostehun euro (500 euro) jasoko dituzte, gehienez.

5. Emakumezkoen umeen 9 Futbolean parte hartzea

Futbol 9ko lehiaketa jardueran, beti ere izen ematea egin bada Emakumezkoen Futbol A-n (F9), umeen kategorian, diru laguntzaren zenbatekoa izango da, gehienez, laurhun eurokoa (400 euro) izena emandako talde bakoitzeko.

6. Arbitrajeak (futboleko modalitatean baino ez)

Arbitratutako partidako, gehienez, hamar euroko (10 euro) diru-laguntza emango da, lurralde-federazioak arbitroa aukeratu duen partidetan izan ezik. Dirua etxeko taldeari ordainduko zaio.

b) *Kudeaketa aurreratua*

1. Langile teknikoen prestakuntza

Diru-laguntzarako eskubidea duen pertsonal teknikoa izateko, kirol arduradun edo entrenatzaile gisa inskribatuta egon behar da.

Puntu bakoitzeko, gehienez, berrogei euroko (40 euro) diru-laguntza emango da.

Pertsonal teknikoa prestatzeko diru-laguntzaren zenbatekoa behean datorren baremoaren arabera emango da.

Entitateko kirol arduradunaren balorazioa
Valoración responsable deportivo de la entidad

Egiaztagiri/titulazio arloak
Áreas de titulación/certificación

Puntuak Puntos	Kirol titulazioa T. deportiva	Titulazio akademikoa T. académica	Beste batzuk Otras titulaciones
19		Gorputz-Hezkuntza liz. edo g. L. o G. en Educación física Jarduera fisikoaren eta kirolaren Zientzietako liz. edo g. L. o G. en Ciencias de la Actividad Física y el Deporte	
11		Gorputz-hezkuntzako Magisteritza edo Gorputz-hezkuntzako Magisteritzan g. Magisterio en Educación Física o G. en Magisterio en Educación Física Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko goimailako zikloa Ciclo de grado superior de animación de actividades físicas y deportivas Goi Kirol Teknikaria Técnico deportivo superior en...	
7	Entrenatzaile nazionala Entrenador/a nacional III. Maila Nivel III	Magisteritza edo Magisteritzan g. Magisterio o G. en Magisterio Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko erdi mailako zikloa Ciclo de grado medio conducción de actividades físicas y deportivas en el medio natural	
3	Herrialdeko entrenatzailea Entrenador/a regional II. Maila Nivel II	(Kirol Teknikaria Técnico deportivo en...)	Astialdiko hezkuntza jardueren zuzendaria Director/a de Act. Educativas en el tiempo libre



Aurreko taulari dagokionez, tituluen puntuazioa ez da metatuko, hau da, puntu gehien dituen titulua baloratuko da, hori kirol arloko titulua, akademikoa edo bestelakoa den kontuan hartu gabe.

Entrenatzaileen balorazioa
Valoración entrenadoras y entrenadores

Egiaztagiri/titulazio arloak
Áreas de titulación/certificación

Puntuak Puntos	Kirol titulazioa T. deportiva	Titulazio akademikoa T. académica	Beste batzuk Otras titulaciones
9	Entrenatzaile nazionala Entrenador/a nacional III. Maila Nivel III	Gorputz-Hezkuntzan liz. edo g. L. o G. en Educación física Jarduera fisikoaren eta kirolaren Zientzietako liz. edo g. L. o G. en Ciencias de la Actividad Física y el Deporte Goi Kirol Teknikaria Técnico deportivo superior en...	
6	Herialdeko entrenatzailea Entrenador/a regional II. Maila Nivel II	Magisteritza, G.H. edo Magisteritzan G.H. g. Magisterio E.F. o G. en Magisterio E.F. Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko goi mailako zikloa Ciclo de grado superior en animación de actividades físicas y deportivas Kirol Teknikaria Técnico deportivo en...	
4	I. Maila Nivel I	Magisteritza edo Magisteritzan g. Magisterio G. en Magisterio Natur ingurunean kirol jarduera fisikoak bideratzeko erdi mailako zikloa Ciclo de grado medio conducción de actividades físicas y deportivas en el medio natural	Astialdiko hezkuntza jardueren zuzendaria Director/a de Act. Educativas en el tiempo libre
3	Begiralea Monitor/a Bloke orokorra, I. Maila Bloque común, Nivel I	Pedagogia edo Pedagogian g. Pedagogía o G. en Pedagogía Psikologia edo Psikologian g. Psicología o G. en Psicología Gizarte-hezitzailea Educador/a social	L.H.-ko Gizarte eta kultur animazioa F.P. II Animación sociocultural Animazio soziokulturaleko goi mailako zikloa Ciclo de grado superior de Animación Sociocultural
2	Eskola kiroleko begiralea Monitor/a de Deporte Escolar		
1		Beste diplomaturak Otras diplomaturas Beste lizentziaturak Otras licenciaturas Beste gradu batzuk Otros Grados	Astialdiko hezkuntza jardueren begiralea Monitor/a de Act. Educativas en el tiempo libre

Aurreko taulari dagokionez, tituluen puntuazioa ez da metatuko, hau da, puntu gehien dituen titulua baloratuko da, hori kirol arloko titulua, akademikoa edo bestelakoa den kontuan hartu gabe.

Titulazio arloei buruzko taulen arabera, kirol arduradunek eta/edo entrenatzaileek lortutako puntuazioa gehitu egingo da, honako irizpide hauekin bat etorrira:

Jardunaldietara joatea eta titulazioa.



Puntu	
0,5	Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako eskola kirolari buruzko jardunaldietariko bakoitzera joateagatik (gehienez 2 puntu).
2	Titulazio arlo bi edo hiruri dagokien titulazioa aurkezteagatik

Kirol arduradunek eta entrenatzaileek lortutako puntuazioa %15 gehituko da baldin eta:

- Emakumeak badira.
- %33ko desgaitasuna edo hortik gorakoa dutela egiaztatzen duen agiria duten pertsonak badira; agiri hori Adin Nagusikoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak edo erakunde baliokideak emandakoa izan behar da.

Entrenatzaileek lortutako puntuazioa %15 gehituko da Arraunean, Herri Kiroletan eta Kirol Aniztetako jardueran parte hartzen badute.

Hemen adierazitako ehunekoak hasierako puntuazioari gehituko zaizkio eta, gehienez ere, %45 gehitu ahal izango da puntuazioa.

2. Eskola kiroleko proiektua

Eskola kiroleko proiektua daukatela egiaztatu eta berau onetsia duten Bizkaiko Lurralde Historikoan irakaskuntza ofizialak ematen dituzten eskolei eta euren guraso elkar-teei edo horiei lotutako nortasun juridikoko entitateei eta Bizkaiko Lurralde Historikoan egoitza soziala duten kirol elkarteei edo/eta klubei, gehienez, zortziehun euro (800 euro) ordainduko zaizkie, eskola kiroleko proiektua daukatela egiaztatu bada Bizkaiko Eskola Kirola programak izango duen arautegia onesten duen abuztuaren 21eko 126/2019 Foru Dekretuaren 9. oinarriaren arabera.

3. Eskabidea egiten duen entitateak kudeaketa integrala hobetzeko sistema martxan jartzea

- Kudeaketa aurreratuarekiko konpromiso diploma indarrean: 80 puntu.
- Hobekuntzarekin lotutako beste erakunde onetsiek emandako ziurtagiriak: 80 puntura arte, beronen maila eta edukiaren arabera.

10. oinarria.— *Aholkularitza*

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko, (horretarako, www.bizkaia.eus/laguntzaileKirolak foru webgunea erabili ahal da).

11. oinarria.— *Ebazpena*

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, entitate interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran entitate interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Kirol Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun diru laguntza itzuli behar dutela-eta. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, behin ebazpena emanda.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabete-koa izango da, gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.



Ebazpena Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak emango du, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren txostena jaso ondoren. Epe hori eskabideari buruzko ebazpen adierazirik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, ebazpen adierazia geroago ere eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua entitate interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Posta ziurtatu bidez ere jakinaraziko zaie entitate interesdunei. Egoitzan agertzeko sistemaren bidez ere komunikatuko da.

Bertan, berariaz azalduko da foru agindu horrek administrazio bidea amaitzen duela eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daitekeela, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari zuzenduta, foru agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi (2) hilabeteko epearen barruan; epe hori ere berdin zenbatuta.

Administrazio publikoen kasuan, deialdia ebazteko foru agindua administrazioarekiko auzien bidean errekurritu ahal izango da, bi (2) hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita. Aurrez errekerimendua egin bada —Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehazten denaren arabera—, orduan, errekurtsoa aurkezteko epea beren-beregiko erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko da zenbatzen edo, bestela, ustez ezetsizat jo eta biharamunean.

12. oinarria.— *Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin*

1. Foru Dekretu honen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza batzuekin bat eginda (finantzaketa propioa barne), inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

IV. TITULUA

DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

13. oinarria.— *Diru-laguntza ordaintzea*

1. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamar egun baliodunetan entitate onuradunak ez badio beren beregi eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Diru-laguntza eman dela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 10 egun baliodun igaro eta berehala, Kirol Zerbitzuak hari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta erakunde onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Dirulaguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun diru laguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek ez duela betetzen betebeharrak edozein, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

**14. oinarria. — Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa**

1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru erakundeak aurretik hala eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Entitate onuradunak berak eskatuta foru diru-laguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kirol Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den diru-laguntzari erreferentzia eginda.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Kirol Zerbitzuari.

15. oinarria. — Justifikazioa

Foru Dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen onuradunek konpromiso hauek bete behar dituzte: diru-laguntza ematea eragin duen jarduera gauzatzea, hots, Bizkaiko lehiaketa-jardueretan edo Heziki hezkuntza-jardueran parte hartzea 2019-2020 denboraldian.

Eman den diru-laguntzaren zenbatekoaren gastuaren erabilera justifikatzea eta jarduera gauzatu dela edo hori lortzeko asmoz jardun dela frogatzea, baita diru-laguntza ematea edo hartaz gozatzea ekarri duten betebeharrak eta baldintzak bete direla ere, kontuan harturik Bizkaiko Foru Aldundia bera dela lehiaketako kirol jarduerok antolatzen dituen, ez da gauzatu beharko dokumentu gehigarriak aurkeztuz, justifikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuaren esku egongo baitira diru-laguntza hau esleitu baino lehen.

16. oinarria. — Diru-laguntzaren onuradunaren beste betebeharrak

Onuradunek betebeharrak hauek ere izango dituzte:

- a) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea diru-laguntza eman dionari, egoitzaren bidez.
- b) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea diru-laguntza eman dionari, egoitzaren bidez. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipena egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.
- c) Udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek xede bererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren berri ematea laguntza eman dion erakundeari, egoitzaren bidez.
- d) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta erakundearen gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- e) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.
- f) Diru-laguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa jaso dela agerrarazi beharko da; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudian ezarritako elementuak baliatuko dira, nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz: «Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du», edo



bestela «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza / Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

Euskara hutsez garatutako proiektuetan, gainera, Euskararen Txantxangorriaren irudia agertu beharko da.

- g) Diru-laguntza jaso duen proiektuaren kanpoko publizitate eta jakinarazpen guztiak gutxienez euskaraz egitea.
- h) Bizkaiko Foru Aldundiari dohainik eta eskusibitaterik gabe lagatzea aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, informazio hori zabaltzeko edo/eta argitaratzeko, edozein baliabide edo formatu bibliografiko, ikus-entzunezko edo informatiko erabiliz edo teknikaren erabilerak ahalbidetzen duen beste edozein erabiliz.
- i) Edozein kasutan ere, onuradunak beste interesdun batzuen aurretik eman behar dio lehentasuna Foru Aldundiari, diruz lagundutako esku-hartzeari buruzko memoria argitaratzeko.
- j) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
- k) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsoneri buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.
- l) Bizkaiko Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.
- m) Deialdi honi dagokionez, foru diru-laguntza baten entitate onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduaren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak. Gehienez ere, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren %90 azpikontratatu ahal izango da.

17. oinarria. — Itzulketa

1. Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako bete-beharretariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- a) Emandako diru-laguntzari dagokion helburua betetzen ez bada.
- b) Proiektua egiteko epea betetzen ez bada jasotako kopurua itzuli beharko da, baita sortutako berandutze-interesak ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak errekerimendua egin ondoren.
- c) Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- d) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.
- e) Foru Dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

2. Diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantziazio gehiago jasotzen bada, orduan ere, diru-laguntza itzuli egin beharko da.

**18. oinarria. — Aurrekontuko partida**

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2020. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da: Seihun eta hamalau mila euro (614.000 euro), honela banatuta:

- a) Bostehun eta hirurogeita hamar mila euro (570.000 euro), 2020ko ekitaldiko G/0403/341108/45100/0000_2007/0134 aurrekontu-partidaren kargura, eskola, guraso elkarte, kirol erakunde eta kirol arloko udal fundazio publikoentzat (irabazi asmorik gabeko erakundeak).
- b) Berrogeita bi mila euro (42.000 euro), 2020ko ekitaldiko G/0403/341108/44300/0000_2007/0134 aurrekontu-partidaren kargura, partaidetzarik gabeko entitateentzat.
- c) Bi mila euro (2.000 euro), 2020ko ekitaldiko G/0403/341108/43299/0000_2007/0134 aurrekontu-partidaren kargura, udalentzat eta udalek kirolaren arloan dituzten udal organismo autonomoentzat (udalerrriak eta tokiko erakundeak).

2. Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua 4. eta 5. zenbakien arabera, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru agindu bidez deialdia ebatzi baino lehen aldatu ahal izango da. Kreditu erabilgarrien behin betiko deklarazioa zein kredituon banaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, dagozkien gastu-espeditenteen aldaketak egin ondoren. Horrek, baina, ez du ekarriko ez eskabideak aurkezteko epe berri bat irekitzea ez deialdia ebazteko epe berri bat hastea.

3. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira diru-laguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.

AZKEN XEDAPENAK**Amaierako Lehen Xedapena. — Arauak emateko gaikuntza**

Ahalmena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Amaierako Bigarren Xedapena. — Indarrean jartzea

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko maiatzaren 12an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko
foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ